

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Berriazko ordenantza honen xedea da Pasaiako euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea.

Diru-laguntzak honako atal hauetako baterako eskatu ahal izango dira:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko.
- Hezitzaileen berriazko prestakuntza euskaraz egiteko.
- UEUko udako ikastaroetarako.
- Merkatariek poltsak eta errotuluak euskaraz jartzeko.
- Enpresek errotuluak euskaraz jartzeko, eta euskara-planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko.
- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilzan erakundeentzako diru-laguntzak.

2. artikulua. Onuradunak

Diru-laguntzen onuradunek, betiere, Pasaiako Udalaren Diru-laguntzen Arautegiak jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantza eta Pasaiako Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean dituztela egiaztatu.

Betekizun horiez gain, diru-laguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

3. artikulua. Diru-laguntzen prozedura eta kudeaketa

Aurrekontu-izendapena, finantziazioaren muga zein den, beste diru-laguntza batzuekin duten bateragarritasuna eta aldiberekotasuna, organo eskudunak zein diren, itzulketa eta zehapenentarako araubidea zein den; horiek guztiak indarrean den Pasaiako Udalaren Diru-laguntzen Arautegian daude jasota, eta bertan jasotakoa bete beharko da, derrigorrez, diru-laguntza hauek jaso ahal izateko.

4. artikulua. Bideratzea eta proposamena egitea

Eskaera aurkezten denean, hari Euskara Saileko arduradunaren txostena erantsiko zaio, eta Alkatezaren esku (edo horrek eskumena eskuordetu balu, organo eskuordetuaren esku) jarriko da dagokion proposamena, hark ebatz dezan.

Euskara Saileko arduradunak eskaerari erantsiko dion txostenean, eskaeran azaldutakoaren eta egiaztatutakoaren arabera, adieraziko du ea eskatzaileak diru-laguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituen, eta egindako eskaerari zein diru kopuru dagokion. Hori guztia, honako Ordenantza honek xedatuari jarraiki.

Espedientea aurreko paragrafoetan esanda bezala osatuta dagoenean, atal bakoitzean zehazten den moduan ebatziko da.

II. EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

5. artikulua. Xedea

Pasaiaiko Udalak, Pasaian euskararen erabilera normalizatzearen, helduen alfabetatze eta euskalduntzea sustatzea du helburu eta egitekoetako bat. Horregatik, euskara ikasteko eta hobetzeko diru-laguntzak emateko arauak finkatu ditu. Euskara ikasteko diru-laguntzen araudia Pasaiaiko Udal euskaltegian nahiz gainontzeko euskaltegietan ikasten ari diren pasaitarrei eta arautegiak onartzen dituen gainontzeko ikasleei aplikatuko zaie.

6.artikulua. Diruz lagunduko diren ikastaroak

HABEk homologatutako zentro eta euskaltegiek emandako euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaro hauek lagunduko dira diruz:

- Modulazio ezberdineko ikastaroak
- Barnetegiak (matrikula eta egonaldi gastuak)
- Autoikaskuntza ikastaroak
- Udako ikastaroak, betiere HABEk homologatutakoak

7.artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

a) Matrikularen % 100 ordainduko zaie:

- Ikasleei.
- Langabetuei, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) kobratzen dutenei, edo Gizarte Larrialdietarako diru-laguntzaren bat jasotzen dutenei.
- Merkatari eta enpresetako langileei.
- Hezitzaile eta entrenatzaileei.
- Gurasoei.

b) Matrikularen % 75 ordainduko zaie:

- Gainerako herritarrei

c) Garraiorako diru-laguntzak langabetuentzat:

Barrutian euskaltegirik ez, edota euskaltegia izan arren herritarrak behar duen mailan talderik sortu ez delako beste barruti bateko euskaltegira joan behar duen herritar langabetuari garraio gastuei aurre egiteko diru-laguntza emango zaio ikasturte bukaeran, baldin eta beka jasotzeko baldintza guztiak betetzen baditu, eta euskaltegiek ziurtagiri bidez baieztatzen badute herritarrari garraiorako diru-laguntza badagokiola.

Diru-laguntza hauek jasoko dituzte egiten dituzten ikastaroen arabera:

- Ikasturte osoko eskoletan aritu diren ikasleek: 180 €.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoetan aritu diren ikasleek: 60 €.

8.artikulua. Diru-laguntza jasotzeko baldintzak

- 16 urtetik gora izatea, matrikula egiten den datarako.
- Foru Ogasun, Gizarte Segurantza eta Pasaiaiko Udalaren zergak eta ordainkizunak egunean izatea.
- Merkatari eta enpresetako langileen kasuan, Pasaiaiko merkataritza establezimendu edo enpresa batean lanean egotea ikastaroa hasten den datarako.
- Hezitzaile eta entrenatzaileen kasuan, Pasaiaiko elkarteren batean hezitzaile edota entrenatzaile lanetan ibiltzea ikastaroa hasten den datarako.
- Gurasoen kasuan, Pasaian errolatuta egotea edo 0-12 urte bitarteko haurrak Pasaiaiko

ikastetxeren batean matrikulatuta izatea ikastaroa hasten den datarako.

- Gainerako herritarren kasuan, Pasaian erroldatua egotea ikastaroa hasten den datarako.
- Nahitaezko dokumentazioa dagozkion epeen barruan aurkeztea.
- Ikastaroa amaitzea, hurrengo puntuan adierazten diren salbuespenetan izan ezik.
- Euskarazko ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia egiaztatzea.
Asistentzia zenbartzeko orduan ez dira hutsegitez hartuko ondoko kasuak:
 - Ikasleren batek, lanean hasi, eta ordutegia dela-eta, ez badauka euskaltegiara etortzerik, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).
 - Gaixotasuna, baldin eta mediku-ziurtagiri ofizial bidez egiaztatzen badu eskoletara joateko ezintasun larria duela.
 - Haurdunaldia, baldin eta mediku-txosten bidez egiaztatzen badu atsedean osoa hartu behar duela.
- Irakasleak aldeko txostena egitea.
- Euskaltegiak jarritako probak egitea.
- Matrikula jasotzeko beste diru-laguntzarik ez jasotzea.
- Ikastaroaren kostu osoa ordainduta izatea dagozkion epeetan.
- Langabetuen, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) kobratzen dutenen, edo Gizarte Larrialdietarako diru-laguntzaren bat jasotzen dutenen kasuan ikastaroaren ordainketa honela egin ahalko da:
 - Matrikularen %80 aurreratuko zaio diru-laguntza eskatzaileari, eta horrek baimena emango dio Udalari endosu bidez diru-laguntza hori zuzenean euskaltegiari ordain diezaion. Ordainketa egiteko era hau aukeratu da diru-laguntza eskatu den helburu horretarako erabiliko dela ziurtatzeko.
 - Matrikularen gainontzeko % 20a ikasleak ordaindu beharko du, eta ikasturte amaieran Udalak itzuliko dio, baldin eta ikastaroan zehar gutxienez %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu.

9. artikulua. Asistentzia ez betetzearen ondorioak

Ikasturte hasieran beka eskatu bai, baina gutxieneko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen %80 itzultzeko eskatuko die. Diru-itzulketa irailaren 30a baino lehen egin beharko da, edo ezingo dute hurrengo 2 ikasturteetan bekarik eskatu.

Udalak aurreratutako diru-kopurua itzuliz gero, 2 urterako ezarritako beka eskatzeko debekua indargabetuko da.

10.artikulua. Prozesua diruz laguntzeko modua

Udalak 10 urteko eperako diru-laguntza emango du. Prozesua lau zatitan banatuko da, eta zati bakoitza jarraian azaldutako urteen buruan gainditu beharko da dirua jasotzeko:

- A1eta A2: 1-3 urratsak 2 urtetan
- B1: 4-6 urratsak 2 urtetan
- B2: 7-9 urratsak 3 urtetan
- C1: 10-12 edo EGA urratsak 3 urtetan

11.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide orria, behar bezala beteta.
- NAren fotokopia.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.
- Matrikularen ordainagiria edo endosoa.

- Euskaltegiaren txostena, ikaslearen aprobetxamendua (asistentzia) eta jarrera azaltzen dituena.
- Eskatzaile-motaren arabera, honako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute:
 - Langabezi egoeran daudenek, ikastaroa hasi dutenean langabezian daudela ziurtatzen duen Lanbideko ziurtagiria edo Gizarte Segurantzako bizitza-laboralaren txostena.
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen badute, Lanbidek emandako ziurtagiria, ikastaroa hasi dutenean egoera horretan zeudela adierazten duena.
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzen badute, markatu matrikula-inprimakian berariaz gaitutako laukitxoa, Gizarte Zerbitzuetan kontsulta egiteko baimena emateko.
- Garraiorako diru-laguntza eskatzen dutenek euskaltegiaren ziurtagiria, herritarrari garraiorako diru-laguntza badagokiola baieztatzen duena.
- Ikasleek: ikasturteari dagokion ikasle txartela.
- Merkatari eta enpresetako langileek: lan egiten duten Pasaiako merkataritza establezimendu edota enpresaren agiria.
- Hezitzaile eta entrenatzaileek: lan egiten duten Pasaiako elkartearen agiria
- Gurasoek: haien seme-alabak matrikulatuta dauden ikastetxearen agiria.

12.artikulua. Ordainketa

Ikastaroa amaitu, eta zerrendatutako agiriak aurkezten direnean bideratuko da diru-laguntza, salbu eta langabetuen, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kobratzen dutenen, edo Gizarte Larrialdietarako diru-laguntzaren bat jasotzen dutenen kasuan endosu bidezko diru-laguntza eskatzen badute.

III. HEZITZAILEEN BERARIAZKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

13.artikulua. Xedea

Elkarteak biziberritzeko ildoan parte hartzen duten elkarteetako begirale eta entrenatzaileentzat berariazko prestakuntza-ikastaroak euskaraz egiteko diru-laguntza lerroa irekitzea, euskaraz jardun behar duten begiraleek prestakuntza euskaraz jaso dezaten.

14.artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

Matrikularen %100 diruz lagunduko da eta diru-itzulketa bi alditan egingo da; lehenengo %50a, ikastaro hasieran, eskaera eta ordainagiria aurkezten direnean eta bigarren %50a ikastaroa amaitu eta ezarri diren baldintzak bete dituztela egiaztatzen dutenean.

15.artikulua. Bete beharreko baldintzak

- Ikastaroa euskaraz egitea.
- Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaroa izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa zein praktikoa gainditzea.

16.artikulua.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- Elkartearen ziurtagiria, Pasaiako elkarteren bateko hezitzailea dela egiaztatzen duena.
- Ikastaroa egin duenaren Nortasun Agiria.
- Ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak alderdi teorikoa eta praktikoa gainditu izana ziurtatzen duena; horrez gain, matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren homologazioa eta hizkuntzari

buruzko xehetasunak ziurtatuko ditu.

- Ikastaroan banatzen den materiala eta praktikaldian egiten duten proiektua.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen duen agiria.

IV. UEUK ANTOLATUTAKO UDAKO IKASTAROAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

17.artikulua. Xedea

Pasaiaiko Udalak Udako Euskal Unibertsitateak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei matrikula ordaintzen laguntzeko diru-laguntza hauek eskainiko dizkie.

18.artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Ikasle eta langabetuei: matrikula eta egoitza gastuen %75 ordainduko die Udalak.
- Bestelakoei: Udalak matrikula eta egoitza gastuen %50 ordainduko die.

19.artikulua. Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

- Pasaian erroldatua egotea
- %100eko asistentzia

20.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- Nortasun agiria.
- Matrikula-orria.
- Matrikularen ordainagiria.
- UEUK egindako ziurtagiria
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen duen agiria.

Hori guztia aurkezteko, ikastaroa bukatzen denetik **hilabeteko** epea izango dute.

V. ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

21.artikulua. Xedea

Pasaian euskararen erabilera normaltzeko Udal Ordenantzaren 49. artikulua merkataritza arlorako jasotzen duen diru-laguntza sistema zehazteko, errotulazio atalari dagokionez, diru-laguntza hauek eskainiko ditu Pasaiaiko Udalak:

22.artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Merkataritza establezimenduei kostuaren % 40 ordainduko die udalak, 300 €-raino.
- Gainerako enpresei kostuaren % 30 ordainduko die udalak, 600 €-raino.

23.artikulua. Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

- Enpresa edo merkataritza-establezimendua Pasaiako udalerrian kokatua egotea.
- Establezimendu berriei eta errotulua aldatu nahi duten zaharrei emango zaie.
- Errotulua euskaraz jartzea.
- Euskarazko testua zuzen idatzita jartzea; hori egiaztatzeko Euskara Sailak gainbegiratuko du.
- Errotuluan establezimenduaren edo enpresaren izen berezia soilik agertzen bada, ez da diru-laguntzarik jasoko.
- Errotulua jarri ahal izateko, beharrezkoa izango da udalak jarduera-baimena emana izatea.
- Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, zergak) egunean izatea.

24.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- Nortasun agiria edo enpresaren IFZ agiria.
- Errotuluaren jatorrizko faktura.
- Errotuluaren argazkia.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.

VI. POLTSETAN IDATZITAKOA EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

25.artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Poltsako idazkuna lehen aldiz euskaraz jartzeagatik, fotolitoa ordainduko zaio establezimenduari, 125 €-ko mugapean eta lehenengo 5.000 poltsen kostuaren % 5, 200 €-ko mugapean.
- EROSI EUSKARAZ leloa eransteagatik, lehenengo 5.000 poltsen kostuaren % 5, 200 €-ko mugapean.

26.artikulua. Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

- Enpresa edo merkataritza-establezimendua Pasaiako udalerrian kokatua egotea.
- Poltsaren errotulazio guztia euskaraz egotea, establezimenduaren izena, helbidea, bestelako datuak...
- Euskarazko testua zuzen idatzita jartzea; hori egiaztatzeko Euskara Sailak gainbegiratuko du.
- EROSI EUSKARAZ leloa jartzeko, poltsak euskara hutsean edo ele bitan egon behar du.
- EROSI EUSKARAZ leloa Udaleko Euskara Sailak emango dio.
- Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, zergak) egunean izatea.

27.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- Nortasun agiria edo enpresaren IFZ agiria.
- Faktura originala.
- Poltsaren ale bat.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizioz egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.

VII. ENPRESEK EUSKARA PLANAK DISEINATZEKO ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

28.artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Euskara-plana diseinatzeko eta haren jarraipena egiteko aholkularitza teknikoa. Kostuaren % 50 udalak hartuko du bere gain eta enpresak beste erdia ordaindu beharko du.
- Eusko Jaurlaritzak euskara-planetarako ematen dituen diru-laguntzen izapideak egiteko aholkularitza teknikoa.

29.artikulua. Onuradunak eta betebeharreko baldintzak

- Enpresa Pasaiako udalerrian kokatua egotea.
- Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, zergak) egunean izatea.

30. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskabide-orria, behar bezala beteta.
- Enpresaren IFZ agiria.
- Diru-laguntzaren eskabidean eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen egiaztapenak ofizios egiteko, Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.

VIII. UDALERRIZ GAINDIKO EREMUETAN EUSKARA SUSTATZEN DABILTZAN ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

31.artikulua. Xedea

Pasaiako Udalak udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeei euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzeko diru-laguntza hauek eskainiko dizkie.

32.artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Udalak urtero zehaztuko du banatuko den diru-laguntzaren zenbatekoa. Onartutako eskaera bakoitzari ordenantza honetako 35. artikuluko puntuazio sistemaren bidez lortutako puntuen baitako diru-laguntza emango zaio.

33.artikulua. Onuradunak eta bete beharreko baldintzak

- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea.
- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea.
- Eskabidea ekainaren 30a baino lehen aurkeztea.

34.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera gutuna edo txostena.

- Foru Ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzen dituzten agiriak.
- Zinpeko aitortpena. Bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diru-laguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen EZ duela egiaztatzen duena.

35.artikulua. Puntuazio sistema

- Urteko egitasmo guztiei emateko dagoen diru-kopuru guztia eta ebaluazioaren arabera erakundeek lortutako puntu guztien zatiketa egin eta eragiketa horrek puntu baten balore ekonomikoa emango du.
- Puntu batetik ateratzen den balore ekonomikoa bider erakundeek lortzen dituzten puntuak zehaztuko dute eman beharreko diru-laguntzaren kopurua.
- Baloraziorako adierazleen datuak EUSTATetik, Nafarroako Estatistika Erakundetik eta Gaindegiatik lortuko dira. Diru-laguntza ematen den urtean argitaratuta dauden azken datuak erabiliko dira baloraziorako.
- Baloraziorako adierazleak eta horien puntuazioa honako hauek dira:

a) Erakundearen eragin eremuko egoera soziolinguistikoa

Biztanleriaren artean dauden euskaldunen (euskaldunak + ia euskaldunak/2) ehunekoa.

- % 0-30,9: 100 puntu
- % 31-40,9: 50 puntu
- % 41-60,9: 20 puntu
- % 61-70,9: 10 puntu
- % 71-100: 5 puntu

b) Erakundearen eragin eremuko biztanle kopurua

2.500.000 edo gehiago	80 puntu
1.000.000tik 2.499.999ra bitarte	60 puntu
500.000-999.999ra bitarte	40 puntu
0-499.999ra bitarte	20 puntu

c) Dagokion eremu administratiboko hizkuntza legediaren garapena

Proiektua	Puntuak
Ez dago legedirik	100
Legedia partziala dago	50
Legedia badago	0

d) Proiektuaren memoria aurkeztu izana

Proiektua	Puntuak
Aurkeztu du eta osatua da	50
Aurkeztu du, baina eskasa da	10
Ez du proiekturik aurkeztu	0

IX. EUSKARAZKO IRUDI KORPORATIBOEI, WEB GUNEEI ETA PROGRAMA INFORMATIKOEI DIRU- LAGUNTZAK

36.artikulua.

Norentzat:

Pasaiaiko kultur-, kirol-, aisialdi-talde, enpresa edo merkataritza zein ostalaritza establezimenduentzat.

Baldintzak:

Irudi korporatiboak

Euskaraz jarritako irudi korporatiboaren elementu bakoitzeko kostuaren % 50 izango da diru laguntza, baina, kontzeptu honengatik ematen diren diru laguntzen baturak ezingo du 350,00 euroko muga gainditu.

Diruz lagunduko diren elementuak: ibilgailuetako errotulazioa, lanerako arropa, biltzeko papera, gutun- azalak, orri idazpurudunak, bisita-txartelak, taloitegiak, albaranak, fakturak, etab.

Webguneak

Euskara hutsezko webgunea izatea, edota ele bietako edo ele anitza izanda, euskarazkoari lehentasuna ematea / euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua ematea.

Domeinuan sartzekoan euskara izango da lehenetsitako hizkuntza, euskara izango da pantailaratzen lehena, %50 gehienez 450 €.

Ele bietako edo ele anitza izanda, euskarazkoari, gutxienez, beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina, lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe, %30, gehienez ere 300€.

Programa informatikoak

Euskarazko programa informatikoak erosteko, jarduera komertziala bideratzeko lagungarri direnak, enpresaren euskararen erabilera normalizatzen lagun dezaketanak: kostuaren %50, gehienez ere 200 €.”

Xedapen gehigarri bakarra

Ordenantza honen garapenerako egoki eta beharrezko diren erabakiak hartuko dituzte, aldian-aldian, horretarako aginpidea duten udal organoek. Hori horrela, euskararen erabilera sustatzeko xedez, berariazko egitasmoak jarriko ditu martxan Udalak. Egitasmo horietako bakoitzak arau eta baldintza bereziak izango ditu, nahiz eta betiere Ordenantza honen ildotik ezarriak izan.

Xedapen iragankorra

Ordenantza honetan ezarritakoa ez zaio aplikagarri izango berau indarrean sartu aurretik deitu edota ematen diren diru-laguntzei.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetuta eta ondoriorik gabe geldituko dira aurretik jarduera beretarako onartuak izan diren diru-laguntzen oinarriak.

Azken xedapena

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarrian Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da Udalak hori aldatzea edo indargabetzea erabaki bitartean.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto

El objeto de esta ordenanza específica es la regulación de las bases para la concesión de subvenciones a actividades de fomento del euskera en Pasaia

Se podrán solicitar subvenciones para cualquiera de los siguientes apartados:

- Aprendizaje y perfeccionamiento del euskera.
- Formación específica para educadores/as en euskera.
- Realización de cursos de verano de la UEU.
- Colocación de rótulos y leyendas de bolsas para comerciantes en euskera.
- Empresas. Rotulación, diseño y seguimiento de planes de euskera.
- Subvenciones para entidades que trabajan en el fomento del euskera en ámbitos supramunicipales.

Artículo 2. Personas beneficiarias

Las personas beneficiarias de estas ayudas deberán cumplir las condiciones recogidas en la Normativa de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia, y acreditar que se hallan al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones y tributos, frente a la Hacienda Foral, a la Seguridad Social y al Ayuntamiento de Pasaia.

Asimismo, deberán acreditar las condiciones que se detallan en cada tipo de ayuda que se explican a continuación.

Artículo 3. Procedimiento y gestión de las ayudas

La consignación presupuestaria, el límite de la financiación, la compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones, los órganos competentes, el reintegro de las subvenciones, vienen recogidas en la Normativa de Subvenciones del Ayuntamiento de Pasaia, y todo lo que en ella se reseña es de obligado cumplimiento para poder recibir alguna de estas ayudas.

Artículo 4. Instrucción y propuesta

Presentada la instancia, la persona responsable del Departamento de Euskera emitirá informe, sometiéndose a la consideración de la Alcaldía o en el caso de que ésta haya delegado la competencia, al órgano municipal competente para dictaminar la misma.

En el informe emitido por la/el responsable del Servicio de Euskera, se hará constar si la persona solicitante, con arreglo a lo expuesto y acreditado en su solicitud, cumple las condiciones requeridas para la concesión, y el importe que correspondería a dicha solicitud. Todo ello, con arreglo a lo dispuesto por la presente Ordenanza.

Una vez completado el expediente de acuerdo a lo reseñado en párrafos anteriores, se resolverá en modo a lo que se recoge en cada apartado de ayudas.

II. BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA APRENDER EUSKERA

Artículo 5. Objeto

El Ayuntamiento de Pasaia con vistas a la normalización del uso del euskera tiene entre sus objetivos y funciones el fomento de la euskaldunización y alfabetización de adultos. Es por ello que ha fijado las normas para conceder subvenciones a las personas pasaitarras que quieran aprender y perfeccionar el euskera. La normativa de subvenciones para aprender euskera se

aplicará tanto a pasaitarras que estén estudiando en el Euskaltegi Municipal de Pasaia como al resto de estudiantes que incluya la normativa.

Artículo 6. Cursos objeto de subvención

Se subvencionarán los siguientes cursos impartidos por centros y euskaltegis homologados por HABE:

- Cursos de diferentes modulaciones
- Internados (matrícula y gastos de estancia)
- Cursos de autoaprendizaje
- Cursos de verano, siempre que sean homologados por HABE

Artículo 7. Cuantía de la subvención

a) Se abonará el 100% del coste de la matrícula a:

- Estudiantes
- Personas desempleadas, personas que perciban la renta de garantía de ingresos (RGI), o alguna ayuda de emergencia.
- Comerciantes y trabajadores/as de empresas.
- Educadores/as y entrenadores/as.
- Padres y madres.

a) Se abonará el 75% del coste de la matrícula a:

- Resto de pasaitarras.

c) Subvenciones de transporte para parados/as

La persona parada que no disponga de euskaltegi en el distrito en que resida, o que tenga que trasladarse a otro distrito porque en su nivel no se haya formado ningún grupo, percibirá una ayuda al final del curso para hacer frente a los gastos de transporte, siempre y cuando cumpla todas las condiciones necesarias para percibir la beca y siempre que el euskaltegi donde estudie certifique que le corresponde la subvención de transporte.

Recibirán las siguientes ayudas en función de los cursos que realicen:

- Alumnos y alumnas que hayan asistido todo el curso: 180 €
- Alumnos/as que hayan asistido a cursos intensivos de tres meses: 60 €

Artículo 8. Requisitos para recibir subvenciones

- Haber cumplido los 16 años antes de la fecha de matrícula.
- Estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Diputación Foral, Seguridad Social y Ayuntamiento de Pasaia.
- En el caso de trabajadores/as de empresas y comerciantes, estar trabajando en una empresa o comercio de Pasaia antes del inicio del curso.
- En el caso de educadores/educadoras y entrenadores/entrenadoras, ejercer como tal en una asociación de Pasaia antes del inicio del curso.
- En el caso de padres y madres, estar empadronados/as en Pasaia o haber matriculado a sus hijos/as de entre 0-12 años en algún centro educativo de Pasaia antes del inicio del curso.
- En el resto de los casos, estar empadronado en Pasaia antes del inicio del curso.
- Entregar la documentación preceptiva dentro de los plazos establecidos.

- Finalizar el curso, salvo en los casos excepcionales que se mencionan en el siguiente punto.
- Acreditar una asistencia mínima del 85% en el curso de euskera.
A la hora de contabilizar la asistencia no se considerarán faltas los siguientes casos:
 - Estudiante que comience a trabajar y no pueda asistir al euskaltegi por razones de horario, siempre que presente certificado de la empresa donde haya comenzado a trabajar (será obligatorio el sello de la empresa).
 - Enfermedad, siempre que se acredite mediante certificado médico oficial que padece una incapacidad grave que le impide acudir a clase,
 - Embarazo, siempre y cuando se certifique mediante informe médico que debe guardar reposo absoluto.
- El profesor o la profesora deberá realizar un informe favorable.
- Realizar las pruebas que le proponga el Euskaltegi.
- No recibir ninguna otra subvención para la matrícula.
- Tener abonado el coste total del curso en los plazos correspondientes.
- Las personas desempleadas, o las personas que perciban la renta de garantía de ingresos (RGI), o alguna ayuda de emergencia social, podrán realizar el abono del curso de la siguiente manera:
 - Se adelantará el %80 de la matrícula a la persona solicitante de la subvención, y éste/ésta autorizará al Ayuntamiento a abonar dicha subvención directamente al euskaltegi mediante endoso. Se ha optado por esta forma de pago de la subvención, para asegurar que la subvención se destine al objetivo para el que ha sido solicitada.
 - El 20% restante de la matrícula lo deberá abonar el/la alumno/a, y al finalizar el curso el Ayuntamiento le devolverá dicho importe, siempre que justifique una asistencia y aprovechamiento del curso del 85%.

Artículo 9. Consecuencias del incumplimiento de la asistencia

El ayuntamiento solicitará la devolución del 80% de la matrícula a aquellos alumnos y alumnas que hayan solicitado la beca al principio de curso pero no hayan cumplido con los requisitos de asistencia. La devolución se hará efectiva antes del 30 de septiembre, en caso contrario, no podrán solicitar beca durante los dos próximos años.

En caso de proceder a la devolución requerida por el Ayuntamiento, se anulará la prohibición de solicitud de beca impuesta para los siguientes 2 años.

Artículo 10. Modo de subvencionar el proceso

El Ayuntamiento de Pasaia subvencionará un proceso de aprendizaje de 10 años. Dicho proceso se distribuirá en cuatro tramos, y cada tramo deberá ser superado en los plazos que a continuación se detallan, para poder percibir la subvención:

A1 y A2: niveles 1-3 en 2 años

B1: niveles 4-6 en 2 años

B2: niveles 7-9 en 3 años

C1: niveles 10-12 o EGA en 3 años

Artículo 11. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- Fotocopia del documento de identidad.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá acreditar

encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias, mediante la aportación de los certificados acreditativos de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social

- Recibo o endoso de la matrícula.
- Informe del euskaltegi sobre el aprovechamiento (asistencia) y la actitud del/a alumno/a.
- En función de las características de la persona solicitante, se deberá presentar asimismo la siguiente documentación:
 - Las personas desempleadas deberán presentar certificado de Lanbide o informe de vida laboral de la Seguridad Social que justifique que al comenzar el curso se encontraba en dicha situación.
 - Las personas que perciban la renta de garantía de ingresos, deberán presentar certificado de Lanbide que justifique que al comienzo del curso se encontraban en dicha situación.
 - Las personas que perciben alguna ayuda de emergencia social, deberán marcar la cuadrícula habilitada específicamente en el impreso de la matrícula, para autorizar al Ayuntamiento a consultar dicho aspecto en la Seguridad Social.
- Las personas que soliciten subvención de transporte, deberán aportar una certificación del euskaltegi que acredite que le corresponde dicho tipo de ayuda.
- Estudiantes: presentarán la tarjeta de estudiante del curso correspondiente.
- Comerciantes y trabajadores/as de empresas: documento del establecimiento comercial o empresa de Pasaia en la que trabajen.
- Educadores/as y entrenadores/as: documento de la asociación en la que trabajen.
- Padres y madres: documento del centro en el que están matriculados/as sus hijos/as.

Artículo 12. Abono

La subvención se tramitará una vez finalizado el curso, y presentada la documentación relacionada anteriormente; salvo si se solicita mediante endoso, en el caso de las personas desempleadas, o personas que perciben la RGI o alguna ayuda de emergencia social.

III. SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA FORMACIÓN ESPECÍFICA DESTINADA A EDUCADORES/AS EN EUSKERA

Artículo 13. Objeto

Apertura de una línea de subvenciones a monitores/as y entrenadores/as de asociaciones participantes en la línea para la revitalización de las asociaciones, a fin de que aquellos/as que deben trabajar en euskera realicen los cursos de formación en euskera.

Artículo 14. Cuantía de la subvención

Se subvencionará el 100 % de la matrícula, realizándose la devolución en dos fases: se devolverá el 50% al comienzo del curso, una vez presentados la instancia y el recibo; y la otra mitad al finalizar el curso, una vez acreditado el cumplimiento de las condiciones.

Artículo 15. Requisitos

- El curso se realizará en euskera.
- El curso estará homologado por el Gobierno Vasco.
- Se deberá superar tanto la parte teórica como la práctica del curso.

Artículo 16. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- Certificado de la asociación, al efecto de acreditar que es educador/a en una asociación de Pasaia.
- Documento de identidad de la persona participante en el curso.
- Certificado del centro que acredite la realización del curso y la superación de la parte teórica y práctica, el importe de la matrícula, la homologación del curso, y detalles relativos a la lengua.
- Material distribuido en el curso y proyecto realizado en el período de prácticas.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá presentar un certificado de la Hacienda Foral en el que se recoja que está al corriente en sus obligaciones tributarias.

IV. SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE CURSOS DE VERANO ORGANIZADOS POR LA UEU

Artículo 17. Objeto

El Ayuntamiento de Pasaia tiene aprobado un sistema de subvenciones para ayudar a sufragar la matrícula de aquellos pasaitarras que quieran acudir a los cursos que anualmente organiza la UEU.

Artículo 18. Cuantía de la subvención

- Estudiantes y desempleados/as: 75% de la matrícula y gastos de residencia.
-
- Al resto: 50% de la matrícula y gastos de residencia.

Artículo 19. Personas beneficiarias y requisitos

- Estar empadronado en Pasaia.
- 100% de asistencia

Artículo 20. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- Documento de identidad.
- Impreso de la matrícula.
- Recibo de la matrícula.
- Certificado emitido por UEU.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá presentar un certificado de la Hacienda Foral en el que se recoja que está al corriente en sus obligaciones tributarias.

La documentación reseñada deberá presentarse en el plazo de un mes una vez finalizado el curso.

V. SUBVENCIONES PARA LA COLOCACIÓN DE RÓTULOS EN EUSKERA

Artículo 21. Objeto

El Ayuntamiento de Pasaia, conforme a lo establecido en el art. 49 de la Ordenanza para la normalización del uso del euskera en lo relativo al sistema de subvención para el sector del comercio, otorgará las siguientes subvenciones:

Artículo 22. Cuantía de la subvención

El Ayuntamiento abonará el 40% del coste a los establecimientos comerciales, hasta 300€. Al resto de empresas el Ayuntamiento les abonará el 30% del coste, hasta 600€.

Artículo 23. Personas beneficiarias y requisitos

- La empresa o el establecimiento comercial tendrá su sede en Pasaia.
- Se concederá a establecimientos nuevos, y a establecimientos existentes que quieran cambiar su rótulo.
- Colocar el rótulo en euskera.
- El texto en euskera debe estar escrito correctamente. A tal efecto, el Servicio de Euskera se encargará de revisarlo.
- En el caso de que en el rótulo figure únicamente el nombre propio de la empresa o establecimiento, no se percibirá la subvención.
- Para colocar el rótulo es imprescindible que el Ayuntamiento haya concedido previamente la licencia de actividad.
- Estar al corriente en sus obligaciones con el Ayuntamiento (licencia, impuestos).

Artículo 24. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- Documento de identidad o NIF de la empresa.
- Factura original del rótulo.
- Fotografía del rótulo.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá acreditar encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias, mediante la aportación de los certificados acreditativos de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social.

VI. SUBVENCIONES PARA LA COLOCACIÓN DE LEYENDAS EN EUSKERA EN BOLSAS

Artículo 25. Cuantía de la subvención

- Por poner la leyenda de la bolsa en euskera por primera vez, se abonará al establecimiento el fotolito, con un máximo 125€ y el 5% del coste de las primeras 5.000 bolsas, con un máximo de 200 €.
- Por incorporar el lema EROSI EUSKARAZ se abonará el 5% de las primeras 5.000 bolsas, con un máximo de 200 €.

Artículo 26. Personas beneficiarias y requisitos

- La empresa o el establecimiento comercial tendrá su sede en Pasaia.
- Toda la rotulación de la bolsa estará en euskera: nombre del establecimiento, dirección, otros datos...

- El texto en euskera debe estar escrito correctamente. A tal efecto, el Servicio de Euskera se encargará de revisarlo.
- Para imprimir el lema EROSI EUSKARAZ en la bolsa, ésta estará en euskera o en euskera y castellano.
- El lema EROSI EUSKARAZ será facilitado por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento
- Estar al corriente en sus obligaciones con el Ayuntamiento (licencia, impuestos).

Artículo 27. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- Documento de identidad o NIF de la empresa.
- Factura original.
- Un ejemplar de la bolsa.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá acreditar encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias, mediante la aportación de los certificados acreditativos de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social.

VII. SUBVENCIONES A LAS EMPRESAS PARA EL DISEÑO Y SEGUIMIENTO DE LOS PLANES DE EUSKERA

Artículo 28. Cuantía de la subvención

- Asesoramiento técnico para el diseño y seguimiento del plan de euskera. Este Ayuntamiento asumirá el 50% del coste y el resto la empresa interesada.
- Asesoramiento técnico para la tramitación de las subvenciones destinadas a los planes de euskera del Gobierno Vasco.

Artículo 29. Personas beneficiarias y requisitos

- La empresa estará ubicada en el municipio de Pasaia.
- Estar al corriente en sus obligaciones con el Ayuntamiento (licencia, impuestos).

Artículo 30. Documentación a aportar

- Instancia debidamente cumplimentada.
- NIF de la empresa.
- Si la persona solicitante no da autorización en el mismo impreso de solicitud para que este Ayuntamiento realice de oficio las correspondientes verificaciones, deberá acreditar encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias, mediante la aportación de los certificados acreditativos de la Hacienda Foral y de la Seguridad Social.

VIII. SUBVENCIONES PARA ENTIDADES QUE TRABAJAN EN EL FOMENTO DEL EUSKERA EN ÁMBITOS SUPRAMUNICIPALES.

Artículo 31. Objeto

El Ayuntamiento de Pasaia otorgará estas subvenciones a asociaciones que trabajan en el fomento del euskera en ámbitos supramunicipales, para abordar campos que inciden en la normalización del euskera.

Artículo 32. Cuantía de la subvención

El Ayuntamiento definirá cada año el importe de la subvención a otorgar. Las subvenciones se otorgarán, en función de los puntos que obtenga cada solicitud aceptada, mediante el sistema de puntuación definido en el artículo 35 de esta ordenanza.

Artículo 33. Personas beneficiarias y requisitos

- Fomentar el euskera en ámbitos supramunicipales.
- Abordar campos que inciden en la normalización del euskera.
- Presentar la solicitud antes del 30 de junio.

Artículo 34. Documentación a aportar

- Carta o informe de solicitud.
- Documentación acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias con la *Hacienda Foral* y con la *Seguridad Social*.
- Declaración jurada por la que se acredite que el importe de la subvención concedida, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ingresos o recursos, no supera el coste de la actividad subvencionada.

Artículo 35. Sistema de puntuación

- El valor económico de un punto será el cociente del importe total para todas las iniciativas anuales y la puntuación total obtenida por las entidades según la evaluación correspondiente.
- El valor económico de un punto multiplicado por los puntos obtenidos por la entidad definirá el importe de la subvención a otorgar a dicha entidad.
- Los indicadores para la evaluación se obtendrán del EUSTAT, del Instituto de Estadística de Navarra y de Gaindegia. La valoración se realizará utilizando los últimos datos publicados en el año de concesión de la subvención.
- Los indicadores para la valoración y sus puntuaciones son las siguientes:

a) Situación sociolingüística del ámbito de incidencia de la entidad.

Porcentaje de euskaldunes (euskaldunes+cuasieuskaldunes/2) entre la población:

0-30,9%: 100 puntos
31-40,9%: 50 puntos
41-60,9%: 20 puntos
61-70,9%: 10 puntos
71-100%: 5 puntos

b) Número de habitantes del ámbito de incidencia de la entidad:

2.500.000 o más	80 puntos
De 1.000.000 a 2.499.999	60 puntos
De 500.000 a 999.999	40 puntos
De 0 a 499.999	20 puntos

c) Desarrollo de la legislación lingüística del ámbito administrativo correspondiente

Proyecto	Puntos
Sin legislación	100
Legislación parcial	50
Existe legislación	0

d) Presentación de la memoria del proyecto

Proyecto	Puntos
Presenta proyecto completo	50
Presenta proyecto insuficiente	10
No presenta proyecto	0

IX. SUBVENCIÓN A IMÁGENES CORPORATIVAS, PÁGINAS WEB Y PROGRAMAS INFORMÁTICOS EN EUSKERA

Artículo 36.

Dirigido a:

Grupos culturales, deportivos y de ocio, y empresas o establecimientos comerciales u hosteleros de Pasaia.

Requisitos:

Imágenes corporativas:

Se subvencionará el 50% de cada elemento de la imagen corporativa que se ponga en euskera, sin que la suma total supere los 350 euros.

Elementos subvencionables: rotulación de vehículos, ropa de trabajo, papel de envolver, sobres, hojas con membrete, tarjetas de visita, talonarios, albaranes, facturas...

Páginas web

Página web en euskera, o bilingüe o multilingüe dando prioridad al euskera; o en la que se dé al euskera el mismo tratamiento que al resto de las lenguas. Al entrar en el dominio el euskera será la lengua predeterminada, la primera lengua que aparezca en pantalla: 50%, con un máximo de 450 €.

Página web bilingüe o multilingüe, con igual tratamiento al euskera que al resto de lenguas, pero sin que el euskera sea la lengua predeterminada en la primera página: 30% con un máximo de 300 €.

Programas informáticos

Adquisición de programas informáticos que faciliten la actividad comercial, y que puedan ayudar a normalizar el uso del euskera en la empresa: 50% con un máximo de 200 €.

Disposición Adicional única.

Los órganos municipales competentes adoptarán, periódicamente, cuantas resoluciones consideren necesarias en orden al desarrollo de la presente ordenanza. En ese sentido, el Ayuntamiento podrá poner en marcha programas específicos tendentes a impulsar el uso del euskera. Cada uno de esos programas contará con normativa y condiciones especiales, aun cuando lo serán siempre al hilo de lo establecido por la presente Ordenanza.

Disposición transitoria

A los procedimientos de concesión de subvenciones ya iniciados antes de la entrada en vigor de la presente ordenanza no les será de aplicación la misma.

Disposición derogatoria

Se derogan, dejando sin valor ni efecto alguno, a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, las bases de subvenciones para la misma finalidad aprobadas anteriormente.

Disposición final

La presente ordenanza entrará en vigor de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y permanecerá vigente hasta que por el Ayuntamiento se acuerde su modificación o derogación.
